

# «Behartuta», Oiongo Udalak bide eman dio Labrazako parke eolikoari



Labrazako herrigunea, artxiboko irudi batean. BERRIA

- Udalak adierazi du legez dagoela derrigortuta egitasmoa onestera.
- Alegazioak aurkeztu zizkion proiektuari, baina Jaurlaritzak atzera botá zituen.
- Arabako Errioxa Bizirik taldeak erabakia gaitzetsi du.

Mikel Elkóroberezibar Beloki

Azkenekoz, Badaiaiko mendilerroan eraiki zuten parke eoliko bat Araban, 2005ean. Bi hamar-kadaren ostean eraikiko dute hurrengoa: Oiongo Labraza herrian egingo dute. Izan ere, gogoz kontra eta protesta artean, Oiongo Udalak atzo arratsaldeko osoko bilkuran eman zion baimena parke eoliko hori eraikitzeari. Zortzi haize errota izango ditu, bost megawattoko potentziakoak; beraz, parkeak 40 megawattoko potentzia izango du. Hau da, urtean ia 100.000 megawatt-ordu ekoitzi ahal izango ditu —ia 30.000 etxe hornitzeko adina energia da hori—.

Labrazako parke eolikoaren erakitzeko proiektua ez da eztabaidatetik at egon, ordea. Aixendar enpresa da proiektuaren bultzatzailea, Iberdrolak eta EEE Energiaren Euskal Erakundeak sortutako enpresa bat —%60ko parte hartzea du Iberdrolak, eta %40koa EEEk—, eta Eusko Jaurlaritzak eraikitze baimen administratiboa eman zion iazko azaroan. Oiongo Udala eta mugimendu ekologista, baina, proiektuaren kontra daude. Udalak alegazioak aurkeztu zizkion proiektuari, baina Jaurlaritzak atzera botá ditu guztiak.

Are, udalak —EH Bildu dago agintean— txosten juridiko bat eskatu zuen jakiteko ea zer ondorio juridiko izango lituzkeen proiektua udal batzarrean baztertuko balu. Ondorioa: Labrazako parke eolikoaren proiektua behin betiko onartzera behartuta daude, legez. Izan ere, eraikitzen hasteko behar diren baldintza guztiak betetzen ditu proiektuak: ingurumen inpaktuari buruzko adierazpena, aurretiazko administrazio baimena eta eraikitze

administrazio baimena. «Badakigu Eusko Jaurlaritzak espediente guztiak aldekotzat jo dituela, eta badakigu hirigintzari dagokionez espediente guztiak behar bezala badaude lizentzia ematera behartuta gaudela», adierazi zuen Jose Manuel Villanueva alkatea, ohar baten bidez.

Oiongo Udalean EAJ eta PSE-EE nagusi zirenean bultzatu zuten parkearen proiektua. Ramiro Gonzalez Arabako ahal-dun nagusiaren ustez, behin betiko onarpena «albeste ezin hobea da», eta «eskerrak» eman dizkio Villanuevari, «egindako lanagatik».

## «Kontraesana»

Arabako Errioxa Bizirik talde ekologistak gaitzetsi egin du udalaren erabakia. Taldearen ustez, «kontraesana» da batetik proiektu horren alde egitea eta bestetik lurraldea eta natur ondarea defendatzea. Oiongo landa eremuari eta mendi inguruei «eraso» egingo die parke eoliko horrek, eta, hori ez ezik, Labrazako 75 bizilagunei «bizkarra» ematea da: «Beren lurren inguruan erabakitzeo duten eskubidea usurpatu diete».

Labraza eta hango ekosistema «arriskuan» daudela ohartarazi du Arabako Errioxa Bizirik-ek, eta gogorarazi du bide juridiko bat irekita dagoela oraindik, prozesu burokratikoan egondako uesteko irregularitasunen ondorioz: «Helegite bat ebatzi gabe dago oraindik».

Eusko Jaurlaritzak energia berriztagarrien ekoizpena handitzeke azpiegiturak sustatuko dituela esana du. Ia hogeitaz ez da parke eolikorik eraiki Araban, Bizkaian eta Nafarroan —Bilboko Portukoa izan zen martxan jarri zen azkena, 2006an—, baina proiektu olde bat aztertzen ari da gobernuak, 30 egitasmotik gora, berriztagarrien ekoizpena handitzeko. Eusko Legebiltzarrak iaz onartu zuen Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legeak jasotzen duenez, energia kontsumoaren %32 estali behar dute energia berriztagarriek 2030. urtean. Gaur-gaurkoz, kontsumoaren %9 estaltzen dute —Nafarroan, %27—.

Labrazakoa Araban abian jarriko den hirugarren parke eoliko izango da. Horietakoa du Gipuzkoarekin partekatzen du. Bizkaiak bi dauzka martxan, eta Nafarroak 60 inguru. ●

## BERRIAK KAZETARI bat behar du Andoainen (Erref.: KAZ\_AN\_25) eta beste bat Bilbon (Erref.: KAZ\_BI\_25)

BERRIA egunkariak bi kazetari behar ditu: bat Andoaingo erredakzio nagusian aritzeko, eta besteá Bilboko ordezkarietan.

### ESKATZEN DEN:

- Kazetaritzako, komunikazioko edo pareko unibertsitate ikasketak izatea, edo kazetari lanetan esperientzia izatea.
- Arduratsua eta ekimenduna izatea, eta komunikatzeko, taldean aritzeko eta euskarri desberdinetara egokitzeko gai izatea.
- Euskaraz besteko hizkuntzak jakitea ere aintzat hartuko da.

### ZER ESKAINTZEN DEN:

- Lanaldi osoko ordezkapen kontratua.
- Berehala lanean hastea.

Interesa dutenek **otsailaren 21a** (ostirala) baino lehen bidali beharko dute curriculuma [gizabaliabideak@berriataldea.eus](mailto:gizabaliabideak@berriataldea.eus) helbide elektronikora.



«Hirigintzari dagokionez espediente guztiak behar bezala badaude, lizentzia ematera behartuta gaudela»

JOSE MANUEL VILLANUEVA  
Oiongo alkatea